



**UZKIKO FISURA**  
**FISURA ANAL**

**GOMENDIO OROKORRAK**

- Idorrierari egin behar zaio aurre, zuntz ugariko dietaren bidez: fruta, barazkiak, zahia.
- Edan likido ugari: litro batetik gora egunero.
- Egin itzazu bainu eseriak ur epel-beroez 4 bider egunero eta kaka egin ostean.
- **DILTIAZEM %2 GEL TOPIKOA** jarri 8 ordurik behin, 8 astetan (hasiera batean).
- Heste-erritmoari laguntzeko, laxante bat har dezakezu, heste-igarotzea bultzatzeko (zorro 1 goizero).
- Analgesiko bat hartu 8 ordurik behin, minaren arabera dena den.
- Zirujauaren kontsultara joan behar zara, aurretik eguna eta ordua eskatuta, emandako jarraibideen arabera betiere.

**DILTIAZEM %2 GEL TOPIKOA**

**Konposizioa, 100 ml-ko:**

Diltiazem..... 2 gr.

Eszipienteak: 100 ml osatzeko besteko kopurua (propilenglikola, hidroxietilzelulosa, ur kontserbagarria).

**Indikazioak:** gela uzkiko fisurak tratatzeko erabiltzen da.

**RECOMENDACIONES GENERALES**

- Evitará el estreñimiento tomando alimentos con mucha fibra en la dieta: fruta, verdura, salvado.
- Beberá abundantes líquidos: más de 1 litro de agua al día.
- Realizará baños de asiento con agua tibia-caliente 4 veces al día y después de cada deposición.
- Se aplicará DILTIAZEM 2% GEL TÓPICO 1 vez cada 8 horas, inicialmente durante 8 semanas.
- Para facilitar el ritmo intestinal, puede tomar un laxante incrementador del tolo intestinal (1 sobre por la mañana).
- Tomará un analgésico cada 8 horas, según dolor.
- Acudirá a la consulta de su cirujano, previa petición de día y hora, según se le indique.

**DILTIAZEM 2% GEL TÓPICO**

**Composición por 100 ml:**

Diltiazem..... 2 g.

Excipientes: (propilenglicol, hidroxietilcelulosa, agua conservans) c.s.p.... 100 ml.

**Indicaciones:** este gel está indicado para el tratamiento de la fisuras anales.



Posologia eta hartzeko modua:

Gutxi gorabehera, 2-3 cm gel erabili behar da 8 ordurik behin; jarri hatz erakuslean, eta, ondoren, uzkiari. Eman masajea uzki-bazterren inguruan, EZ sartu barruan.

Hasiera batean, 2 HILABETEKOA izango da tratamendua (8 astekoa).

Kontrako ondorioak: oso arraroa da medikamentu honek kontrako ondorioak izatea. Uzkiaren ingurunean erresumina nabaritu dezakezu, dena den.

Nola gorde: medikamentua giro-tenperaturan gorde, hezetasunetik babestuta.

**UMEEK HARTU EZIN DITUZTEN TOKIAN GORDE BEHAR DIRA MEDIKAMENTUAK**

Posología y modo de administración:

Se pondrá aproximadamente 2-3 cm de gel cada 8 horas sobre el dedo índice y posteriormente se lo aplicará en el ano, masajeando la zona alrededor del margen anal, SIN introducirlo en su interior.

El tratamiento se mantendrá en principio 2 MESES (8 semanas).

Efectos adversos: Este medicamento presenta muy raramente efectos secundarios. Usted puede notar escozor en la zona perianal.

Conservación: mantenga este medicamento a temperatura ambiente y protegido de la humedad.

**LOS MEDICAMENTOS DEBEN MANTENERSE FUERA DEL ALCANCE DE LOS NIÑOS**

**FARMAZIAK OSATU ETA KONTROLATZEKO  
PROZEDURA ARAUTUA**

Formularen izena: DILTIAZEM % 2 GEL

TOPIKOA

OSAKETA: 100 ml

**PRINTZIPIO AKTIBO ETA ESZIPIENTEEN  
KOPURUA**

- |   |       |
|---|-------|
| 1. Diltiazem CIH  | 2 gr  |
| 2. Propilenglikola                                      | 10 ml |
| 3. Hidroxietilzelulosa                                  | 2 gr  |
| 4. Ur kontserbagarria: 100 ml osatzeko besteko kopurua. |       |

**MATERIALA:**

Prezipitate-ontzia, balantza, irabiagailu magnetikoa, probeta, espatula.

**NOLA EGIN:**

1.- Ur kontserbagarria prestatzea: 50 mg Nipagin sodikoa eta 25 mg Nipasol pisatzea. Nipasola 1-2 ml alcohol 96°-ean disolbatu behar da. 100 ml ur destilatu esterik berotu eta Nipasol disolbatua eta Nipagina bota behar da bertara; parabenak disolbatu arte berotu behar da ura. Soluzioa 70° lortu arte berotu behar da.

2.- Diltiazena sartu Propilenglikolean. Nahastatuta dagoela, erantsi Hidroxietilazelulosa, apurka-apurka eta metalezko espatula batez astiro-astiro eragin, ondo nahastatzeko.

3.- Astiro-astiro eragin behar da espatulaz, ur kontserbagarria gehitzen zaion bitartean (70° ingurura dagoela); osagaiak guztiz nahastatu behar dira.

**KONTROLAK:**

Uniformetasuna, gardentasuna eta burbuila gabekoa. Bolumenen kontrola.

**PROCEDIMIENTO NORMALIZADO DE  
ELABORACIÓN Y CONTROL POR LA  
FARMACIA**

Nombre fórmula: DILTIAZEM 2% GEL TÓPICO

PREPARACIÓN: 100 ml

**PRINCIPIOS ACTIVOS Y EXCIPIENTES  
CANTIDAD**

- |  |       |
|--|-------|
| 1. Diltiazem CIH                                   | 2 gr  |
| 2. Propilenglicol                                  | 10 ml |
| 3. Hidroxietilcelulosa                             | 2 gr  |
| 4. Agua conservans cantidad suficiente para 100 ml |       |

**MATERIAL:**

Vaso de precipitados, balanza, agitador magnético, probeta, espátula.

**MODUS OPERANDI:**

1.- Preparación del agua conservans: pesar 50 mg de Nipagin sódico y 25 mg de Nipasol. Disolver el Nipasol en 1-2 ml de alcohol 96°. Calentar 100 ml de agua destilada estéril y añadir Nipasol disuelto y Nipagin, calentar el agua hasta disolución de los parabenos. Llevar la solución a 70°.

2.- Incorporar el diltiazem en el Propilenglicol. Una vez mezclado incorporar la Hidroxietilcelulosa poco a poco y agitando suavemente con la ayuda de la espátula metálica para mezclar bien.

3.- Agitar lentamente con la espátula mientras se incorpora el agua conservans (aproximadamente a 70° C) y mezclar completamente los ingredientes.

**CONTROLES:**

Uniformidad, transparencia y sin burbujas. Control de volúmenes.



**ONTZI MOTA:**

30 gr-ko aluminiozko tutuak (3 tutu).

**IRAUNGIPENA:**

30 egunekoa.

**KONTSERBAZIOA:**

Giro-tenperaturan. Argitasunetik babestu beharrekoa.

**ERABILERA:**

Uzkiko fisuren tratamendua.

**ETIKETATZEA:**

Indarrean dagoen araudiaren araberrakoa.

**BIBLIOGRAFIA:**

Diltiazem Hydrochloride 2% Topical Gel.  
Internacional Journal of Pharmaceutical  
Compounding, 2002, 6(1).

**ENVASADO:**

Tubos de aluminio de 30 gr (3 tubos).

**CADUCIDAD:**

30 días.

**CONSERVACIÓN:**

Temperatura ambiente. Proteger la luz.

**TERAPÉUTICA:**

Tratamiento de fisuras anales.

**ETIQUETADO:**

Según normativa vigente.

**BIBLIOGRAFÍA:**

Diltiazem Hydrochloride 2% Topical Gel.  
Internacional Journal of Pharmaceutical  
Compounding, 2002, 6(1).